

## KUDEAKETA POLITIKA

CIC energiGUNE materialen eta energia biltegitratzeko sistemen alorreko I+G+b jardunean aritzen den bikaintasun ikerketa zentroa da eta, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean (ZTBES) barruan, erreferenziako eragilea da jarraian aipatutako ezaguera-arloetan:

- **Energia elektrikokimikaren biltegitratzea (EES)**
- **Energia termikoaren biltegitratzea (TES)**

CIC energiGUNE zentroan lan giro paregabea dugu, bertako eta nazioarteko talentua uztartzen duten lehen mailako profesional eta ikerketa talde bati esker. Halaber, gure lehiakideengandik bereizten gaituzten azpiegitura eta ekipamendu zientifiko ezin hobekak ditugu profesional hauen jarduera garatu ahal izateko. Hori guztia ez da inolaz ere hautazkoa eta nazioarteko erreferente bihurtzen lagundu digu.

Posizionamendu hori lortzeko ezinbestekoa izan da Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia bezalako erakundeen sostengua eta, jakina, gure Patronatuarena, sektoreko enpresa nagusien ordezkaritza duena.

Era berean, ezinbestekoa da gure Nazioarteko Komite Zientifikoaren laguntza, izan ere, hauen eskuzabaltasuna dela medio lortu dugu energiaren biltegitratzearekin lotutako etorkizun handieneko alorretan sartzea.

Ildo horretatik, badakigu transferentzia hori ahalbidetzen duten lankidetzak-estrategiak ezinbestekoak direla eta horretarako, hain zuzen ere, sustatuko ditu CIC energiGUNE-k beharrezkoak diren tresnak.

Kudeaketa funtsezko elementutzat jotzen dugu zentroaren funtzionamendua optimizatze aldera eta I+G+b jarduna ezinbestekoa da abangoardiako ezaguera bikain eta disruptiboa ekarriko dituzten emaitzak lortzeko.

Transferentzia teknologikoa eta euskal industriarekin eta haren beharrek dugun harreman estua oinarri hartuta, CIC energiGUNE-ren helburua da, ZTBES-ko beste eragile batzuekin lankidetzan, zentroaren jarduerak ekoizten duten ezaguera horrek euskal industriaren beharrei erantzuteko balio dezan, hartara aberastasuna eta enplegua sortuta.

Funtsezko xede hau lortzeko bide bakarra pertsonak dira, haien talentua baita gure erakundearen aktibo nagusietako bat.

Zentroko zuzendaritzak ongi daki konpromiso argi eta irmoa hartu behar dugula gure Kudeaketa Ereduarekin, hori baita zentroaren funtzionamendu eraginkorra bermatzen duen ardatz nagusia. Horretarako, prozesuen arabera kudeaketan oinarritutako sistema bat abian jartzea erabaki dugu, etengabeko hobekuntzaren filosofia batekin eta UNE 166.002 arauan oinarritutako betekizunekiko konpromisoarekin batera.

Azkenik, apustu honen arrakasta bermatzeko, beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditugu zentroaren eskura eta sinatu dudana politika hau konpromiso horren frogara da.

  
Nuria Gisbert Trejo  
Zuzendari Nagusia